

TOLARGI, SL

2024ko EKITALDIKO KONTUAK

- 1. 2024/12/31ko balantzea**
- 2. Galdu-irabazien kontua**
- 3. Ondare garbian izandako aldaketan egoera-orria**
- 4. Ekitaldiko memoria**

T O L A R G I

Tolosako argia. Zurea
La luz de Tolosa. Tu luz

TOLARGI, SL

1. 2024/12/31ko BALANTZEA

AKTIBOA	2023. URTEA	2024. URTEA	OHARRAK	ONDARE GARBIA ETA PASIBO	2023. URTEA	2024. URTEA	OHARRAK
A) AKTIBO EZ ARRUNTA	2.066.336	2.071.916		A) ONDARE GARBIA	1.455.176	1.801.132	
I. Ibilgetu ukiezina	161.569	156.559	4	A-1) FUNTS PROPIOAK	1.157.074	1.513.115	
II. Ibilgetu materiala	1.830.195	1.851.584	5				
III. Higiezinak inbertsioak	0	0		I. Harpidetutako kapitala	30.050	30.050	6
IV. Taldeko enpresetan eta elkartuetan	0	0		II. Jaulkipen-prima	0	0	
V. Epe luzerako finantza-inbertsioak	0	0		III. Erreserbak	989.758	1.127.024	6
VI. Zerga geroratuuen ondoriozko aktiboak	74.571	63.773		IV. (Ondare propioako aktiboak)	0	0	
				V. Aurreko ekitaldietako enbertsioak	0	0	
				VI. Bazkideen bestelako ekitaldietako enbertsioak	0	0	
				VII. Ekitaldiko emaitzak	137.266	356.041	
B) AKTIBO ARRUNTA	270.150	572.014		VIII. (Konturako dibidenduak)	0	0	
I. Izakinak	0	0		A-2) JASOTAKO DIRU LAGUNAK	298.102	288.017	
II. Merkataritza-zordunak eta kobratzeak	2.246	90.280	7	B) PASIBO EZ ARRUNTA	215.616	199.521	
III. Taldeko enpresetan eta elkartuetan	0	0		I. Epe luzerako hornidurak	0	0	
IV. Epe laburrerako finantza-inbertsioak	0	0		II. Epe luzerako zorrak	141.091	127.517	
V. Epe laburrerako periodifikazioak	0	0		III. Taldeko enpresekiko eta enpresekiko zorrak	0	0	
VI. Eskudirua eta beste aktibo likidoak	267.904	481.734	7	IV. Zerga geroratuuen ondoriozko aktiboak	74.526	72.004	8
				V. Epe luzerako periodifikazioak	0	0	
				C) PASIBO ARRUNTA	665.693	643.277	
				I. Epe laburrerako hornidurak	0	0	
				II. Epe laburrerako zorrak	20.230	13.488	
				III. Taldeko enpresekiko eta enpresekiko zorrak	0	0	
				IV. Merkataritza-hartzeak	645.463	629.789	8
				V. Epe laburrerako periodifikazioak	0	0	
AKTIBO GUZTIRA	2.336.485	2.643.930		ONDARE GARBIA ETA PASIBO GUZTIRA	2.336.485	2.643.930	

TOLARGI, SL

2. 2024ko EKITALDIKO GALDU IRABAZIEN KONTUA

TOLARGI, SL SOZIETATEAREN 2024. URTEKO GALDU IRABAZIEN KONTUA

	(ZOR)/HARTZEKO	(ZOR)/HARTZEKO	MEMORIAKO
	2023. URTEA	2024. URTEA	OHARRA
1. Negozio-zifraren zenbateko garbia	1.148.792	1.297.682	10
3. Enpresak bere aktiborako egindako lanak		0	
4. CNMC Bono Sozialaren finantziakzioa	-7.246	-2.825	
5. Bestelako ustiapen-sarrerak	313	1.953	
6. Langile-gastuak	-563.583	-465.547	10
7. Bestelako ustiapen-gastuak	-204.992	-255.652	
8. Ibilgetuaren amortizazioa	-228.342	-169.585	4 eta 5
9. Finantzaz bestelako ibilgetuko diru-laguntzak egozteak	12.607	12.607	
Ibilgetua besterentzearen ondoriozko narriadura eta emaitzak	4.595	-7.418	
A) USTIAPEN EMAITZAK	162.145	411.215	
12. Finantza-sarrerak	0	0	
13. Finantza-gastuak	-6.244	-6.695	
B) FINANTZA EMAITZAK	-6.244	-6.695	
C) ZERGA AURREKO EMAITZA	155.901	404.520	
17. Mozkinen gaineko zerga	-18.634	-48.479	9
D) EKITALDIKO EMAITZA	137.266	356.041	

T O L A R G I

Tolosako argia. Zurea
La luz de Tolosa. Tu luz

TOLARGI, SL

3. 2024ko EKITALDIKO ONDARE GARBIAK IZANDAKO ALDAKETEN EGOERA ORRIA

6

Rondilla, 34 B
20400 Tolosa
Tlf. 943 65 00 65
www.tolargi.com

	KAPITALA		Erreserbak	dareko partakidie	stela	kitaldiko emaitto di	guntzak, dohain	GUZTIRA
	Galdatu g	30.050						
A. SALDOA, 2022. URTEAREN AMAIERAN		30.050	1.292.427			- 302.669	308.188	1.327.996
I. 2022ko eta aurrekoetako irizpide-aldaketen ondoriozko doikuntzak								
II. 2022ko eta aurrekoetako erroreen ondoriozko doikuntzak								
B. SALDO DOITUA, 2023. URTEAREN HASIERAN		30.050	1.292.427			- 302.669	308.188	1.327.996
I. Galdu-irabazien kontuaren emaitza						137.266		137.266
II. Ondare garbian aitortutako sarrerak eta gastuak							10.086	10.086
III. Bazkide edo jabeekiko eragiketak								
1. Kapital-gehikuntzak								
2. (-) Kapital-murrizketak								
3. Bazkide edo jabeekiko bestelako eragiketak								
IV. Ondare garbiaren bestelako alda kuntzak			- 302.669			302.669		
C. SALDOA, 2023. URTEAREN AMAIERAN		30.050	989.758			137.266	298.102	1.455.176
I. 2023. urteko irizpide-aldaketen ondoriozko doikuntzak								
II. 2023. urteko erroreen ondoriozko doikuntzak								
D. SALDO DOITUA, 2024. URTEAREN HASIERAN		30.050	989.758			137.266	298.102	1.455.176
I. Galdu-irabazien kontuaren emaitza						356.041		356.041
II. Ondare garbian aitortutako sarrerak eta gastuak							10.085	10.085
III. Bazkide edo jabeekiko eragiketak								
1. Kapital-gehikuntzak								
2. (-) Kapital-murrizketak								
3. Bazkide edo jabeekiko bestelako eragiketak								
IV. Ondare garbiaren bestelako alda kuntzak			137.266			- 137.266		
E. SALDOA, 2024. URTEAREN AMAIERAN		30.050	1.127.024			356.041	288.017	1.801.132

TOLARGI, SL

4. 2024ko EKITALDIKO MEMORIA

2024ko ekitaldiari dagokion **M E M O R I A**

1.- ENPRESAREN JARDUERA

“TOLARGI, SL” Tolosako Udalak abenduaren 27ko 54/1997 Legea indarrean jarri izanaren ondorioz sortu zuen merkataritza-konpainia da, legeak energia elektrikoaren banaketa merkataritza-sozietate baten bitartez egitera behartzen zuen-eta.

Sozietatea 2000ko abenduaren 22an eratu zen, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen Legearen (apirilaren 2ko 7/1985) 85.3 c) artikuluan eta apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 103. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitakoaren babesean, energia elektrikoa banatzeko zerbitzua iraupen mugagabearekin egiteko.

Bere xede soziala energia elektrikoaren banaketa da eta Tolosako udal-barrutiaren barruan besterik ez du garatzen jarduera.

Egoitza sozialak Tolosako udaletxean du egoitza, Plaza Zaharreko 6 zenbakian, hain zuzen. Halaber, San Esteban auzoan kokatzen da elektrizitate-zentral berria.

Identifikazio fiskaleko zenbaki hau du: B-20719613.

Ekonomia Ministerioaren Banatzaile, Merkaturatzaile eta Kontsumitzaile Kualifikatuen Administrazio Erregistroan duen identifikazio-zenbakia **R1-278** da.

TOLARGI, SL-ren kapital sozialaren % 100 Tolosako Udalarena da.

Aplikatzekoak diren lege-xedapenak betetzeko, urteko kontuen memoria hau formalizatu du. Unitate bakarra osatzen du 2024ko abenduaren 31n itxitako ekitaldiko egoera-balantzearekin, galdu-irabazien kontuarekin eta ondare garbian izandako aldaketen egoera-orriarekin batera.

2.- URTEKO KONTUAK AURKEZTEKO OINARRIAK.

a) Irudi zehatza

Erantsitako 2024ko ekitaldiko urteko kontuak 2024ko abenduaren 31n sozietateak zituen kontabilitate-erregistroetatik abiatuta prestatu dituzte administratzaileek. Kontu horietan 1515/2007 Errege Dekretuak, enpresa txiki eta ertainen Kontabilitate Plan Orokor berria onartu zuenak, jasotzen dituen kontabilitate-printzipioak eta balorazio-irizpideak aplikatu dira, baita kontabilitatearen esparruan indarrean dauden gainerako lege-xedapenak ere. Kontu horiek sozietatearen ondarearen, finantza-egoeraren eta emaitzen irudi zehatza erakusten dute.

Urteko kontu horiek Akziodunen Batzar Nagusiak onartzeko daude. Nolanahi ere, haiek aurkezteko ardura duten administratzaileen iritziz, adierazitako kontuak aldaketa esanguratsurik gabe berretsiko dira.

b) Kontabilitate-printzipioak

Urteko kontu hauek prestatzeko aplikatu diren kontabilitate-printzipioak eta -arauak memoria honen 4. oharrean laburbildutakoak dira. Urteko kontu hauek prestatzean, ondarean, finantza-egoeran eta emaitzetan eragina duten nahitaezko kontabilitate-printzipio guztiak aplikatu dira.

c) Informazioa alderatzea

Merkataritza-legeriarekin bat etorritik, Sozietatearen administratzaileek egoera-balantzearen kontu-sail bakoitzarekin, galdu-irabazien kontuarekin, ondare garbian izandako aldaketan egoera-orriarekin eta memoriarekin batera, itxitako ekitaldiko zifrak aurkezteaz gainera, aurreko urteko ekitaldikoak ere aurkeztu dituzte, alderatzeko.

d) Informazioaren eta egindako zenbatespenen erantzukizunak

Sozietatearen administratzaileei dagokie urteko kontu hauetan bildutako informazioaren erantzukizuna.

2024ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiari dagozkion sozietatearen urteko kontuetan, sozietatearen administratzaileek egindako zenbatespenak erabili dira hainbat kasutan, bertan bildu diren zenbait aktibo, pasibo, sarrera, gastu eta konpromiso baloratzeko. Zenbatespen horiek, funtsean, honako alderdi hauei buruzkoak dira:

- Aktibo jakin batzuen narriaduraren ondoriozko galerak.
- Aktibo materialen eta ukiezinaren bizitza baliagarria.

Zenbatespen horiek urteko kontu hauek egin zirenean aztertutako gertakarien inguruan eskura genuen informaziorik onenarekin egin ziren arren, gerta liteke hurrengo ekitaldietan horiek aldaraztera (gorantz nahiz beherantz) behartuko gaituzten gertaerak izatea etorkizunean. Hori geroko ikuspegiarekin egingo genuke, etorkizuneko irabazien eta galeren kontuetan zenbatespenean izandako aldaketak izango lituzkeen ondorioak aitortuz betiere.

3.- EMAITZAK APLIKATZEA.

2024ko ekitaldiko emaitza 356.041 eurokoa izan da. Administrazio Kontseiluak dibidenduen banaketa eta borondatezko erreserba.

Banaketa-oinarria	Zenbatekoa
Ekitaldiko emaitza	356.041
Guztira	356.041
Banaketa	Zenbatekoa
Dibidendua	200.000
Borondatezko erreserbak	<u>156.041</u>
Guztira	356.041

4.- ERREGISTRATZEKO ETA BALORATZEKO ARAUAK

Urteko kontuak formulatzean aplikatu diren kontabilitate-irizpiderik adierazgarrienak ondoren deskribatutakoak dira:

A) IBILGETU UKIEZINA

Azpitalde honetako elementuak eskurapen-prezioaren edo produkzio-kostuaren arabera baloratzen dira. Amortizazioen zuzkiduran ibilgetu materialerako ezarritako irizpideak aplikatzen dira, ondoren adierazitakoa ezertan galarazi gabe:

Informatika-aplikazioak

Kontzeptu honetan sartzen dira informatika-programen jabetza eskuratzegatik edo haiek erabiltzeko eskubideagatik ordaindutako zenbatekoak, soilik haien erabilerak hainbat ekitaldi hartuko dituela aurreikusten denean. Aplikazio horiek mantentzearen kostuak zuzenean egozten dira sortzen diren ekitaldiko gastu gisa.

Amortizazioa modu linealean egiten da 5 urteko aldian, dagokion aplikazioa erabiltzen hasten den unetik aurrera.

B) IBILGETU MATERIALA

Ibilgetu materialean bildutako ondasunak beren kostuaren arabera baloratzen dira, dela eskurapen-prezioa, dela produkzio-kostua.

Halaber, ibilgetu materialaren balioaren barruan egongo da eraistearren edo erretiratzearen ondorioz onartutako obligazioen eta aktibo horrekin lotutako beste batzuen egungo balioaren hasierako zenbatespena, hala nola kokatzen den lekua birgaitzearen kostuak, baldin eta obligazio horien ondorioz hornidurak erregistratzen badira, horiei aplikatzekoa den arauan xedatutakoaren arabera.

B.1 Eskurapen-prezioa

Eskurapen-prezioak barnean hartzen ditu, saltzaileak edozein deskontu edo prezio-beherapen kendu ondoren fakturatutako zenbatekoaz gain, funtzionatzeko baldintzetan jarri arte sortzen diren gastu gehigarri eta zuzenean erlazionatutako guztiak, lekuan bertan kokatzea eta aurreikusitako moduan funtzionatzeko behar den beste edozein baldintza ere barne direla; beste zenbait gasturen artean, hauek sartuko dira: lur-berdinketa eta eraistea, garraioa, muga-zergeren eskubideak, aseguruak, instalazioa, muntaketa eta antzekoak.

B.2 Produkzio-kostua

Enpresak berak fabrikatutako edo eraikitako ibilgetu materialeko elementuen produkzio-kostua lortzeko, lehengaien eta beste materia kontsumigarrien eskurapen-prezioari ondasun horiei zuzenean egotz dakizkiekeen gainerako kostuak gehituko zaizkio. Kasuan kasuko ondasunei zeharka egotz dakizkiekeen kostuei zentzuz dagokien zatia ere gehituko da, kostu horiek fabrikazio- edo eraikuntza-aldiari dagozkion heinean eta aktiboa baldintza eraginkorretan jartzeko beharrezkoak diren neurrian.

Amortizazioak modu sistematiko eta arrazionalen ezarri beharko dira ondasunen bizitza baliagarriaren eta hondar-balioaren arabera, haien funtzionamenduaren, erabileraren eta gozamenaren ondorioz izan dezaketen balio-galera kontuan hartuta, eta izan lezaketen zaharkitze tekniko edo komertziala kontuan hartzeko aukera ezertan galarazi gabe.

2015. urtearen guztizko kostuaren aldean kostu adierazgarria eta elementuaren gainerakoaren bizitza baliagarriaz bestelakoa duen ibilgetu materialaren elementu baten zati bakoitza bereiz amotizatuko da.

Hurrenez hurrengo elementuen balio-galera kalkulatzeko 2015. urtea arte aplikatutako amortizazio-koefizienteak modu linealean kalkulatzeko 1996ko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Arauan ezarritako koefizienteen arabera.

Hauek dira aplikatu beharreko koefizienteak:

IBILGETU MATERIALA	%
Eraikuntzak	5
Instalazioak	10
Makineria	10
Altzariak/Makineria	10
Bulegoko ekipamendua	20
Informatika-prozesuetarako ekipamendua	25
Garraio-elementuak	33

2016. urtean, sozietateak, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak (MLBN) energia elektrikoa banatzeko jardueraren ibilgetuko elementuei aplikatzekoak diren amortizazio-koefizienteak buruz argitaratutako araudiari eta gomendioei jarraikiz, aplikatutako koefizienteak aldatzeko erabakia hartu du. Hortaz, data horretatik aurrera ondoren adierazitakoak dira koefizienteak.

Hauek dira aplikatu beharreko koefizienteak:

IBILGETU MATERIALA	%
Eraikuntzak	2
Instalazioak	2,5
Makineria	2,5
Neurketa-ekipamendua	6,67
Smart Grids.	8,33
Altzariak/Makineria	10
Bulegoko ekipamendua	20
Informatika-prozesuetarako ekipamendua	20
Garraio-elementuak	16,67

Ibilgetu materialeko elementu baten balio-narriaduraren ondoriozko galera gertatuko da bere kontabilitate-balioa berreskura daitekeen zenbatekoa baino handiagoa denean, betiere zenbateko hori arrazoizko balioaren (salmenta-kostuak kenduta) eta erabilerako balioaren arteko zenbatekorik handiena dela kontuan hartuta.

Ondorio horietarako, ekitaldiaren itxieran behintzat, enpresak ebaluatuko du ibilgetu materialen bat narriatuta egon daitekeen zantzurik ote dagoen, eta, kasu horretan, berreskura daitekeen zenbatekoa zenbatetsi beharko du eta bidezkoak diren balorazio-zuzenketak egin.

Ibilgetu materialeko elementuen narriaduraren ondoriozko balorazio-zuzenketak eta horiek eragin dituzten inguruabarrak desagertu ondorengo haien itzulketa gastu edo sarrera gisa aitortuko dira, hurrenez hurren, galdu-irabazien kontuan.

Ibilgetu materialeko elementuei baja emango zaie besterentzen diren unean edo beste bideren baten bitartez erabiltzen direnean, edo etorkizunean mozkin edo etekin ekonomikorik lortzea espero ez denean.

Enpresak finantza-aktibo bat aitortuko du bere balantzean, kontratuaren edo negozio juridikoaren alderdi behartu bihurtzen denean, kontratuan jasotako xedapenen arabera.

Finantza-aktiboak, balorazioaren ondorioetarako, kategoria hauetakoren batean sailkatuko dira:

- Kostu amortizatuko finantza-aktiboak.
- Negoziatzeko mantendutako finantza-aktiboak.
- Kostuko finantza-aktiboak.

Kostu amortizatuko finantza-aktiboak

Kategoria honetan sailkatuko dira:

- Merkataritza-eragiketen ondoriozko kredituak: enpresaren trafiko-eragiketen ondoriozko ondasunen salmentan eta zerbitzugintzan sortzen diren finantza-aktiboak dira (bezeroa eta hainbat zordun).
- Kostu amortizatuko bestelako finantza-aktiboak: ondare-tresnak eta eratorriak izan gabe, merkataritza-jatorria ez duten eta zenbateko zehatzeko edo zehazgarriko kobrantza duten finantza-aktiboak dira.

Kategoria honetan sartzen diren finantza-aktiboak kostuaren arabera baloratuko dira hasieran. Kostu hori entregatutako kontraprestazioaren arrazoizko balioaren gehi zuzenean egotz dakizkien transakzio-kostuen baliokidea izango da.

Kategoria honetan sartzen diren finantza-aktiboak, gerora, kostu amortizatuaren arabera baloratuko dira. Sortutako interesak galdu-irabazien kontuan kontabilizatuko dira, interes-tasa efektiboaren metodoa aplikatuta.

Ekitaldiaren itxieran behintzat, behar diren balorazio-zuzenketak egin beharko dira, baldin eta finantza-aktibo baten edo antzeko arrisku-ezaugarriak dituzten batera baloratutako finantza-aktiboen talde baten balioa narriatu izanaren ebidentzia objektiborik badago, eta narriadura hori hasieran aitortu ondoren izandako gertaera baten edo gehiagoren ondorio izan bada eta horiek etorkizuneko eskudiru-fluxu zenbatetsietan murrizketa edo atzerapena eragiten badute, beharbada zordunaren kaudimen-gabeziaren ondorioz.

Finantza-aktibo horien balio-narriaduraren ondoriozko galera liburuetan duten balioaren eta zenbatespenen arabera sortuko dituzten etorkizuneko eskudiru-fluxuen egungo balioaren arteko aldea izango da, hasierako aitortenaren unean kalkulaturako interes-tasa efektiboaren arabera deskontatuta.

Negoziatzeko mantendutako finantza-aktiboak.

Finantza-aktibo bat (mailegu edo kreditu komertziala edo ez, zor-balore adierazgarria, ondare-tresna edo eratorria) negoziatzeko edukitzen dela esaten da:

- a.- Epe laburrean saltzeko asmoz sortu edo eskuratzen denean.
- b.- Finantza-tresna eratorria denean.

Negoziatzeko mantendutako finantza-aktiboak kostuaren arabera baloratuko dira hasieran. Kostu hori entregatutako kontraprestazioaren arrazoizko balioaren baliokidea izango da. Zuzenean egotz dakizkiekeen transakzio-kostuak ekitaldiko galdu-irabazien kontuan aitortuko dira.

Negoziatzeko mantendutako finantza-aktiboak, gerora, arrazoizko balioaren arabera baloratuko dira, besterentzean izan litezkeen transakzio-kostuak kendu gabe. Arrazoizko balioan izaten diren aldaketak ekitaldiko galdu-irabazien kontuan aitortuko dira.

Kostuko finantza-aktiboak

Kategoria honetan sailkatuko dira taldeko enpresen, talde anitzekoen eta elkartuen ondarean egindako inbertsioak.

D) FINANTZA PASIBOAK

Enpresak finantza-pasibo bat aitortuko du bere balantzean, kontratuaren edo negozio juridikoaren alderdi behartu bihurtzen denean, kontratuan jasotako xedapenen arabera.

Finantza-pasiboak, balorazioaren ondorioetarako, kategoria hauetako batean sailkatuko dira:

- Kostu amortizatuko finantza-pasiboak.
- Negoziatzeko mantendutako finantza-pasiboak.

Kostu amortizatuko finantza-pasiboak

Kategoria honetan sailkatuko dira:

- Merkataritza-eragiketen ondoriozko zorrak (hainbat hartzekodun eta hornitzaile): enpresaren trafiko-eragiketen ondoriozko ondasunen eta zerbitzuen erosketan sortzen diren finantza-pasiboak dira.
- Merkataritza bestelako eragiketen ondoriozko zorrak: tresna eratorriak ez diren eta merkataritza-jatorria ez duten finantza-pasiboak dira.

Kategoria honetan sartzen diren finantza-pasiboak kostuaren arabera baloratuko dira hasieran. Kostu hori jasotako kontraprestazioaren arrazoizko balioaren baliokidea izango da, zuzenean egotz dakizkiekeen transakzio-kostuek doitu.

Kategoria honetan sartzen diren finantza-pasiboak, gerora, kostu amortizatuaren arabera baloratuko dira. Sortutako interesak galdu-irabazien kontuan kontabilizatuko dira, interes-tasa efektiboaren metodoa aplikatuta.

Negoziatzeko mantendutako finantza-pasiboak

Finantza-pasibo bat negoziatzeko edukitzen dela esaten da finantza-tresna eratorria denean.

E) MOZKINEN GAINEKO ZERGA.

Arau honek aipatzen dituen mozkinaren gaineko zergak arau fiskalen arabera kalkulaturako enpresa-emaizatik abiatuta likidatzen diren zuzeneko zergak dira.

Ekitaldi bati dagozkion mozkinaren gaineko zergaren edo zergen likidazio fiskalen ondorioz enpresak ordaintzen duen kopurua da zerga arrunta. Zergaren kuotako kenkarien eta beste abantaila fiskal batzuen ondorioz, atxikipenak eta konturako ordainketak izan ezik, eta aurreko ekitaldietako galera fiskal konpentsagarrien eta benetan ekitaldi honetan aplikatu direnen ondorioz, zerga arruntaren zenbatekoa txikiagoa izango da.

Aurtengo ekitaldiari eta aurrekoei dagokien zerga arrunta pasibo gisa aitortuko da ordaintzeko dagoen heinean. Aitzitik, aurtengo ekitaldiari eta aurrekoari dagokien ordaindutako kopurua ekitaldi horien ondoriozko zerga arrunta baino handiagoa bada, soberako kopurua aktibo gisa aitortuko da.

guztira, zergak eta zergak gainera gaineko zergaren ondoriozko gastuak zerga arruntaren ondoriozko gastuari dagokion zatia eta zerga geroratuaren ondoriozko gastuari dagokion zatia bilduko ditu.

Zerga arruntaren ondoriozko gastua edo sarrera bat etorriko da atxikipenen eta konturako ordainketen kitapenarekin eta zerga arruntaren ondoriozko pasibo eta aktiboen aitortpenarekin.

Zerga geroratuaren ondoriozko gastu edo sarrera bat etorriko da zerga geroratuaren ondoriozko pasibo eta aktiboen aitortpenarekin eta kitapenarekin, eta, hala badagokio, diru-laguntzaren izaera ekonomikoa duten kenkariak eta bestelako abantaila fiskalak kontabilizatzearen emaitza izan daitekeen ondare garbiari zuzenean egotzitako sarrera aitortzearekin eta galdu-irabazien kontuari egotzearekin.

F) SALMENTEN ETA ZERBITZUGINTZAREN ONDORIOZKO SARRERAK

Ondasunen salmentatik eta zerbitzugintzatik datozen sarrerak horien ondorio den kontrapartidaren (jasoa edo jasotzekoa) arrazoizko balioaren arabera baloratuko dira. Kontrako ebidentziarik ezean, ondasun edo zerbitzu horietarako adostutako prezioa izango da, honako hauek kenduta: edozein deskonturen zenbatekoa; prezio-beherapena edo enpresak eman ditzakeen antzeko beste kontu-sail batzuk; eta kredituen nominalari txertatutako interesak.



4.- IBILGETU UKIEZINA.

4.1. Informatika-aplikazioak

Honako mugimendu hau izan zuen 2023. urtean.

CTA. CONT.	KONTZEPTUA	IBILGETU GORDINA 31/12/2022	AMORTIZAZIO METATUA 31/12/2022	IBILGETU GARBIA 31/12/2022	INBERTSIOA 2023	BAJA 2023	AMORTIZAZIOA 2023	IBILGETU GORDINA 31/12/2023	AMORTIZAZIO METATUA 31/12/2023	IBILGETU GARBIA 31/12/2023
206.0	Informatika-Aplikazioak	29.603	28.746	857	0	0	190	29.603	28.936	666
206.1	Informatika-Aplikazioak. CS Telegestioa eta funtzio berriak	32.635	11.200	21.434	9.720	0	7.112	42.355	18.312	24.043
206.2	Informatika-Aplikazioak. PICen hobekuntza	60.685	26.284	34.400	20.959	0	12.907	81.643	39.191	42.452
206.3	Informatika-Aplikazioak. Erretzibuzio eta Inbertsio Plana	22.093	12.718	9.375	8.848	0	4.242	30.941	16.960	13.981
206.4	Informatika-Aplikazioak. Telegostioa. STG	98.331	39.630	58.701	13.884	0	20.468	112.215	60.099	52.117
206.5	Informatika-Aplikaioak. SICC	1.451	1.179	272	0	0	166	1.451	1.346	106
206.6	Informatika-Aplikazioak. GIS Berria	23.741	13.624	10.117	1.416	0	3.307	25.158	16.931	8.227
206.7	Informatika-Aplikazioak. Scada eta CT automatizazioa	16.453	6.845	9.609	3.423	0	3.633	19.876	10.478	9.399
206.8	Informatika-Aplikazioak. Datadis	2.480	1.155	1.325	0	0	496	2.480	1.651	829
206.9	Informatika-Aplikazioak. Digitalizazioa. Web Sarbide eta Konexioa	6.900	1.763	5.137	4.047	0	1.785	10.946	3.547	7.399
206.10	Informatika-Aplikazioak. Digitalizazioa. Zibersegurtasuna	3.359	336	3.023	0	0	672	3.359	1.008	2.351
	IBILGETU UKIEZINA GUZTIRA	297.731	143.480	154.250	62.296	0	54.977	360.027	198.458	161.569

Honako mugimendu hau izan zuen 2024. urtean.



CTA. CONT.	KONTZEPTUA	IBILGETU GORDINA 31/12/2023	AMORTIZAZIO METATUA 31/12/2023	IBILGETU GARBIA 31/12/2023	INBERTSIOA 2024	BAJA 2024	AMORTIZAZIOA 2024	IBILGETU GORDINA 31/12/2024	AMORTIZAZIO METATUA 31/12/2024	IBILGETU GARBIA 31/12/2024
206.0	Informatika-Aplikazioak	29.603	28.936	666	0	0	190	29.603	29.127	476
206.1	Informatika-Aplikazioak. CS Telegestioa eta funtzio berriak	42.355	18.312	24.043	0	0	7.400	42.355	25.712	16.643
206.2	Informatika-Aplikazioak. P/Cen hobekuntza	81.643	39.191	42.452	35.665	0	17.461	117.308	56.652	60.656
206.3	Informatika-Aplikazioak. Erretzibuzio eta Inbertsio Plana	30.941	16.960	13.981	7.755	0	5.245	38.695	22.204	16.491
206.4	Informatika-Aplikazioak. Telegestioa. STG	112.215	60.099	52.117	8.377	0	20.674	120.592	80.773	39.820
206.5	Informatika-Aplikaioak. SICC	1.451	1.346	106	0	0	42	1.451	1.388	63
206.6	Informatika-Aplikazioak. GIS Berria	25.158	16.931	8.227	3.452	0	3.289	28.609	20.220	8.389
206.7	Informatika-Aplikazioak. Scada eta CT automatizazioa	19.876	10.478	9.399	0	0	3.770	19.876	14.248	5.629
206.8	Informatika-Aplikazioak. Datadis	2.480	1.651	829	0	0	496	2.480	2.147	333
206.9	Informatika-Aplikazioak. Digitalizazioa. Web Sarbide eta Konexioa	10.946	3.547	7.399	1.189	0	2.209	12.136	5.757	6.379
206.10	Informatika-Aplikazioak. Digitalizazioa. Zibersegurtasuna	3.359	1.008	2.351	0	0	672	3.359	1.680	1.680
	IBILGETU UKIEZINA GUZTIRA	360.027	198.458	161.569	56.438	0	61.449	416.466	259.907	156.559

Narriadura-testa egin da eta iritzi zaio ez dagoela ibilgetu immaterialaren narriadura-arazori



Ibilgetu materialak ondoren zehazten den mugimendua izan du 2023ko ekitaldian.

CTA. CONT.	KONTZEPtua	IBILGETU GORDINA 31/12/2022	AMORTIZAZIO METATUA 31/12/2022	IBILGETU GARBIA 31/12/2022	INBERTSIOA 2023	BAJA 2023	AMORTIZAZIOA 2023	IBILGETU GORDINA 31/12/2023	AMORTIZAZIO METATUA 31/12/2023	IBILGETU GARBIA 31/12/2023
2100	Lurrak eta ondasun naturalak	858	0	858	0	0	0	858	0	858
211	Industria eraikin eta pabilioak	1.498.604	578.013	920.592	10.577	0	30.078	1.509.181	608.090	901.091
212	Instalazioak	4.041.232	3.525.970	515.262	23.746	0	85.470	4.064.978	3.611.440	453.537
213	Makinaria	229.086	225.620	3.467	0	0	231	229.086	225.851	3.236
214	Neurtzeko ekipo eta Telegestioa	456.374	312.324	144.050	8.393	0	26.036	464.767	338.361	126.407
215	Smart Grids, Despachos de Maniobra. CT Control	288.368	36.906	251.462	115.862	0	28.858	404.230	65.764	338.466
2160	Altzariak	3.963	3.573	390	0	0	60	3.963	3.633	330
2161	Bulegoko Ekipoak	5.651	5.543	108	0	0	72	5.651	5.615	36
2170	Informazioa prozesatzeko Ekipoak	47.605	43.231	4.373	3.473	0	1.612	51.078	44.843	6.234
2180	Garraio-Elementuak	70.510	69.563	947	0	0	947	70.510	70.510	0
232	Muntaketako instalazio teknikoak	11.467	0	11.467	0	11.467	0	0	0	0
	IBILGETU MATERIALA GUZTIRA	6.653.718	4.800.743	1.852.975	162.051	11.467	173.365	6.804.302	4.974.108	1.830.195



Ibilgetu materialak ondoren zehazten den mugimendua izan du 2024ko ekitaldian.

CTA. CONT.	KONTZEPTUA	IBILGETU GORDINA 31/12/2023	AMORTIZAZIO METATUA 31/12/2023	IBILGETU GARBIA 31/12/2023	INBERTSIOA 2024	BAJA 2024	AMORTIZAZIOA 2024	IBILGETU GORDINA 31/12/2024	AMORTIZAZIO METATUA 31/12/2024	IBILGETU GARBIA 31/12/2024
2100	Lurrak eta ondasun naturalak	858	0	858	0	0	0	858	0	858
211	Industria eraikin eta pabilioiak	1.509.181	608.090	901.091	2.708	0	30.229	1.511.890	637.516	873.570
212	Instalazioak	4.064.978	3.611.440	453.537	26.656	0	18.374	4.091.633	3.629.814	461.819
213	Makinaria	229.086	225.851	3.236	0	0	231	229.086	226.082	3.005
214	Neurtzeko ekipo eta Telegestioa	464.767	338.361	126.407	1.978	0	22.416	466.745	360.777	105.968
215	Smart Grids, Despachos de Maniobra, CT Control	404.230	65.764	338.466	75.954	0	34.893	480.184	100.657	379.527
2160	Altzariak	3.963	3.633	330	0	0	60	3.963	3.693	270
2161	Bulegoko Ekipoak	5.651	5.615	36	0	0	36	5.651	5.651	0
217	Informazioa prozesatzeko Ekipoak	51.078	44.843	6.234	0	0	1.897	51.078	46.740	4.337
218	Garraio-Elementuak	70.510	70.510	0	0	12.065	0	58.445	58.445	0
232	Muntaketako instalazio teknikoak	0	0	0	94.435	72.205	0	22.230	0	22.230
	IBILGETU MATERIALA GUZTIRA	6.804.302	4.974.108	1.830.195	201.730	84.270	108.136	6.921.763	5.069.376	1.851.584

Ekitaldiaren itxieran, sozietateak ibilgetu materialaren narriadura-testa egin du (goian adierazia). Kontuan izanik energia elektrikoaren banatzeko jardura 2009. urteaz geroztik arautu eta ordaindutako jardura dela, egiaztatzen da Energia Batzorde Nazionalak (CNE) sozietateari esleitutako beher-behineko ordainketa. 2023. urterako zenbatekoa 1.212.377 euro, ibilgetu materialaren amortizazioa baino askoz ere zenbateko handiagoa dela. Beraz, horren kostua berreskuratu ahal izango dela espero da eta ez da goian adierazitako ibilgetuaren inongo narriadurarik kontuan hartzen.

6.- FUNTS PROPIOAK

Ikus ondare garbian izandako aldaketen egoera-orrian izandako mugimendua.

a) Kapital soziala

Kapital soziala, oso-osorik ordaindua, 30.050 € da, eta batetik hamabost mila hogeita bosteraingo (1 - 15.025, biak barne) korrelatiboki zenbakitutako 15.025 partaidetza sozial izendun eta zatiezinek osatzen dute. Partaidetza bakoitzak bi euroko balio izendatua du. Partaidetzak ezin izango dira titulu negoziagarrietan txertatu, ezta akzio izendatu ere. Tolosako Udala partaidetza sozialen % 100aren jabea da.

b) Lege-erreserba

Kapital Sozietateen Legearen Testu Bateginaren arabera, sozietateek ekitaldiko mozkinaren % 10 lege-erreserbarako erabili behar dute, erreserba hori, gutxienez, kapital sozialaren % 20ra iritsi arte. 2005eko ekitaldiko emaitza banatzeko proposamenarekin kapital sozialaren % 20raino iritsi zen. Hortaz, ekitaldiko emaitza banatzeko proposameneari mozkin osoa borondatezko erreserbetara banatzea proposatu da. Lege-erreserba erabili ahal izango da jada handituta dagoen kapitalaren % 10 gaindituko duen saldoaren zatian kapitala handitzeko. Lehen aipatutako helburua salbuetsita, eta kapital sozialaren % 20 gainditzen ez duen artean, erreserba hori galerak konpentsatzeko soilik erabil daiteke, baldin eta helburu horretarako behar adinako beste erreserba erabilgarririk ez badago.

Lege-erreserba ezin da banatu, eta galerak konpentsatzeko erabiltzen bada, horretarako behar adinako beste erreserbarik ez badago, etorkizuneko mozkinekin berrezarri behar da.



7.- FINANTZA AKTIBOAK

2023ko abenduaren 31ko finantza-aktiboak ondoren banakatuta daude.

KATEGORIAK - MOTAK	Epe luzerako finantza-tresnak						Epe laburrerako finantza-tresnak						Guztira
	Ondare-tresnak		Zor-balore adierazgarriak eratorriak - Bestelakoak		Ondare-tresnak		Zor-balore adierazgarriak eratorriak - Bestelakoak		Ondare-tresnak		Zor-balore adierazgarriak eratorriak - Bestelakoak		
	2022	2023	2022	2023	2022	2023	2022	2023	2022	2023	2022	2023	
Negoizatzeko mantendutako finantza-aktiboak													
Kostu amortizatuko finantza-aktiboak									469.315	270.149			
Kostuko finantza-aktiboak													
GUZTIRA	-	-	-	-	-	-	-	-	469.315	270.149	469.315	270.149	

2024ko abenduaren 31ko finantza-aktiboak ondoren banakatuta daude.

KATEGORIAK - MOTAK	Epe luzerako finantza-tresnak				Epe laburrerako finantza-tresnak				GUZTIRA
	Ondare-tresnak		Zor-balore adierazgarriak eratorriak - Bestelakoak		Ondare-tresnak		Zor-balore adierazgarriak eratorriak - Bestelakoak		
	2023	2024	2023	2024	2023	2024	2023	2024	
Negoizatzeko mantendutako finantza-aktiboak									-
Kostu amortizatuko finantza-aktiboak							270.149	572.014	572.014
Kostuko finantza-aktiboak									-
GUZTIRA	-	-	-	-	-	-	270.149	572.014	572.014



8.- FINANTZA PASIBOAK

2023ko abenduaren 31ko finantza-pasiboak ondoren banakatuta daude.

KATEGORIAK - MOTAK	Epe luzerako finantza-tresnak								Epe laburrerako finantza-tresnak								Guztira
	Kreditu-erakundeekiko zorrak				Eratortzeak - Bestelakoak				Eratortzeak - Bestelakoak				Eratortzeak - Bestelakoak				
	2022	2023	2022	2023	2022	2023	2022	2023	2022	2023	2022	2023	2022	2023			
Kostu amortizatuko finantza-pasiboak	148.858	141.091			77.047	74.526			17.098	12.381			990.055	645.463			
Negoziatzeko mantendutako finantza-pasiboak																	
GUZTIRA	148.858	141.091	-	-	77.047	74.526	17.098	12.381	-	-	990.055	645.463	1.233.058	873.460			

2024ko abenduaren 31ko finantza-pasiboak ondoren banakatuta daude.

KATEGORIAK - MOTAK	Epe luzerako finantza-tresnak								Epe laburrerako finantza-tresnak								GUZTIRA			
	Kreditu-erakundeekiko zorrak				Eratortzeak - Bestelakoak				Eratortzeak - Bestelakoak				Eratortzeak - Bestelakoak							
	2023	2024	2025	2026	2023	2024	2025	2026	2023	2024	2025	2026	2023	2024	2025	2026				
Kostu amortizatuko finantza-pasiboak	141.091	127.517							74.526	72.004			12.381	13.488			645.463	629.789	873.461	842.798
Negoziatzeko mantendutako finantza-pasiboak																				-
GUZTIRA	141.091	127.517	-	-					74.526	72.004	12.381	13.488	-				645.463	629.789	873.461	842.798

2022ko ekitaldiari dagokionez, kontabilitate-mozkinaren eta sozietateen gaineko zergaren ondoriozko zerga-oinarriaren arteko berdinkatzea ondoren adierazitakoa da:

Ekitaldiko kontabilitate-emaizta	356.041
<u>Igoerak</u>	
Kontabilitateaz kanpoko doikuntza positiboak	
Ekitaldiko gastu gisa kontabilizatutako sozietateen gaineko zerga	48.479
Zerga-oinarria (emaizta fiskala)	404.520

2020. urtean -80.507 €-ko galerak izan genituen, eta 2021. ekitaldian kontabilizatutako kreditu fiskala sortu genuen, 16.102 €-ko zerga-oinarri negatiboak (%20 S/-80.507) konpentsatzeko.

2021an, 7.255 €konpentsatu dira zerga-oinarri negatiboetatik, eta zerga korrontearen gastu arrunta 2.300 €da. 2021eko abenduaren 31n, zerga-oinarri negatiboengatik 8.847 €geratzen dira kreditu fiskaletik konpentsatzeko.

2022an, -378.336 €-ko galerak izan ditugu, eta zerga-oinarri negatiboak (BIN) konpentsatzeko kreditu fiskala berriro kontabilizatu dugu, 75.667 €ko kreditu fiskal berria. Beraz, 2022ko abenduaren 31n, 84.514 €-ko kreditua dugu BIN bakoitzeko.

2023an, kreditu fiskala konpentsatu da 31.200€ zenbatekoarekin eta 21.258€ko zenbatekoa sortu da, beraz efektu garbia 9.942€ gutxitzea da..

2024 urtean kreditu fiskala konpentsatua geratzen da (BIN) zerga oinarri negatiboa 10.799€,zenbatekoarekin erabat kitatuta geratuz BIN kreditu fiskala

Azken lau ekitaldiak daude ikuskatzeko irekita. Zergen aitorpenak ezin dira behin betikotzat hartu preskribatzen diren arte edo agintari fiskalek onartzen ez dituzten arte. Kontuan izan behar da, gainera, legeria fiskala hainbat modutan interpreta daitekeela. Administrazioaileen iritziz, kontu-ikuskapenen ondorioz agerian gera daitekeen edozein pasibo fiskal gehigarrik ez du eragin adierazgarririk izango, oro har, urteko kontuetan.

10.- SARRERAK ETA GASTUAK

A) LANGILEAK

Enpresan, 2024 eko abenduaren 31n, 7 langile aktibo zeuden.

2023ko eta 2024ko ekitaldietan izan diren langile-gastu adierazgarrienen xehetasuna honako hau da:

KONTZEPTUA	2023	2024
- Soldatak eta alokairuak	341.630	344.423
- Erretiro aurreratuaren kalte-ordaina	90.510	0
- Gizarte Segurantzak eta bestelako gastu sozialak	131.442	121.124
GUZTIRA	563.582	465.547

2023ko Juan Carlos Ugarteren erretiro aurreratuaren kalte ordaina 90.510€ izan zen. 2024 urtean ez da horrelako kontzepturik izan.

B) SALMENTAK.

Enpresaren negozioen merkatu geografikoa oso-osorik dagokio Tolosako udal-barrutiari.

SALMENTAK	2023	2024
- Banaketarako ordainsaria	1.057.742	1.205.743
Guztira.....	1.057.742	1.205.743
<u>Zerbitzugintza:</u>		
- Kontagailuen alokairua	79.351	79.611
- Kontratazio-eskubideak	11.699	12.328
Guztira.....	91.050	91.939
NEGOZIO ZIFRA GUZTIRA	1.148.792	1.297.682

11.- TOLOSAKO UDALAREKIKO ERAGIKETAK

TOLARGI, SL sozietateak ondoren adierazitako eragiketak eta ordainketak egin ditu 2023 eta 2024 urteetan Tolosako Udalarekin.

KONTZEPTUA	2023	2024
Hiri-lurzoruaaren aprobetxamendua	15.949	18.826
EJZ	2.956	
Zirkulazioaren gaineko zerga eta bestelakoak	1.983	2.005
GUZTIRA	20.888	20.831

12.- ADMINISTRAZIO KONTSEILUA

Kapital Sozietateen Legearen Testu Bategina onartzen duen uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren 260. artikulua eta sozietatearen estatutuen 14. artikulua betetzeko, ohartarazi da 2024ko ekitaldian Administrazio Kontseiluko kideek ez dutela inongo zenbatekorik kobratu batzarretara bertaratzearen ondoriozko dieten kontzeptupean.

Halaber, ez dago administratzaileei emandako aurrerakinik edo krediturik. Horrez gain, sozietateak ez du bere kargura estaltzen kontseilarien aldeko aseguruurik edo bermerik, eta ez du inongo betebeharririk edo bestelako konpromisorik hartu taldearekin edo taldeko kideren batekin.

Kapital Sozietateen Legearen 229. artikuluan ezarritakoaren arabera, adierazi da Administrazio Kontseiluko kideek ez dutela egiten, ez beren ez besteren kontura, Tolargi, SL sozietatearen xedea osatzen duen izaera bera, antzekoa edo osagarria duen jarduerarik.

13.- INGURUMENARI BURUZKO INFORMAZIOA

Sozietateak ez du aktiborik aktibo ez-arruntaren barruan, ingurumen-inpaktua minimizatzeko eta ingurumena babestu eta hobetzeko, eta ekitaldian ez du diru-laguntzarik jaso eta ez du gasturik egin ingurumena babesteko eta hobetzeko. Halaber, sozietateak ez du hornidurarik zuzkitu ingurumen-jarduketan ondoriozko gastuak estaltzeko, uste baitu ezin zaiola galdata ingurumenaren babesarekin eta hobekuntzarekin erlazionatutako pasiborik. Era berean, ez du uste horri lotutako kontingentziarik izan duenik.

14.- HORNITZAILEEI ORDAINTZEKO BATEZ BESTEKO ALDIARI BURUZKO INFORMAZIOA

	2024
	Egunak
Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko aldia	30

15.- ITXIERAREN ONDORENGO GERTAERAK

Ekitaldiaren itxieraren ondoren ez da izan abian den enpresaren printzipioaren aplikazioan eragina izan dezakeen edo egoera-orri finantzarioak hobeto interpretatzeko aukera emango lukeen garrantzizko gertaerarik.

Tolosa, 2025ko martxoaren 28 a

"TOLARGI, SL"

Helbide soziala: Udaletxea, zk.g. - TOLOSA. Gipuzkoako Merkataritza Erregistroan inskribatua, 0 liburuaren 1866. liburukian, 89. folioan, 8. atalean, SS-18533 orrian. 1. inskripzioa. IFK: B-20719613.

Urteko kontu hauek 2024ko abenduaren 31n itxitako ekitaldiari dagozkion "egoera-balantzeak", "galdu-irabazien kontuak", "ondare garbian izandako aldaketen egoera-orriak" eta "memoriak" osatzen dituzte. Alde bakar batean inprimatutako orrietan daude jasota eta, adostasun-froga gisa, jarraian, azken orri hau kontseilari guztiek sinatuta ageri da.


Tolosa, 2025ko martxoaren 28 a



Ander Figuerido Zubiria jauna
Lehendakaria
NAN: 72.465.642-W



Kristina Pelaez Errazkin andrea
Kontseilaria
NAN: 44.145.570-Z



Jose Maria Villanueva Telleria jauna
Kontseilaria
NAN: 15.942.689-D



Estitxu Kortajarena Ugarte andrea
Kontseilaria
NAN: 35774150-L



Patxi Amantegi jauna
Kontseilaria
NAN: 15.987.698-F